

## **“Somos Viento” (36:19)**

Mexikoko Tehuantepec Istmoan San Dionisio del Mar izeneko parke eolikoaren eraikuntzak eragin duen gatazka eta erresistentzia erakusten da dokumental honetan. Mareas Renovablesen kasua da hori, baina 3 parke eraiki nahi dituen Iberdrolak ere komunitateak haserretu egin ditu. Eskualdeko biztanleen eguneroko bizipenak eta iritziak dira filmaren erdigunea. Hau da, komunikabide handietan agertzen ez direnei eman zaie hitza. Energia berdearen eta “garapen garbiaren” diskurtsoa agerian uzten du, megaproiektu horien logika eta funtzionamendua ulertzen lagunduko digun ikuspegi zabalagoa eskainiz.